

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzeile eta bazkide-sareak osatzen dituzte eta itunen bidez ezartzen dira.



MANDEKOn KASUAN:

Ezinbestekoa da proiektua aurrera eramateko funtsezko eragileak, aktoreak edo bazkideak zein diren zehaztea. Gure proiektuaren kasuan, funtsezko itunak gure artekoak izango lirateke bakoitzak funtsezko baliabide bat jarritz. Batetik, Paulak harreman publikoetaz arduratuko zen. Leirek, honetan abilezia duenez, kontabilitatearako arduraria hartuko zuen. Argazkigintza eta irudimen zatiak Aliak ekarriko zituen. Azkenik, Mayer gure zerbitzuaren marketing-a egitearen erantzulea izango zen. Hala ere, beste enpresa baten beharra izango genuke materiala lortzeko, zehazki plastiko mota espeziala, PE (polietilenoa) eta akaso PP (polipropilenoren bat), ezinbestekoa dena proiektuarekin aurrera egiteko.

Horretarako, Plasnor enpresa izan daiteke aukera paregabea, beraien eskutik lortu genezakeelako beharrezkoa den plastiko kantitate nahikoa, eta prezio ezin hobean. Horregatik kontaktatu genuen beraiekin, gure proiektuarekin aurrera egitea posible ikusten duten edo ez jakiteko. Eta beraien ikuspuntua eta aholkuak ezinbestekoak izan zaizkigu aurrera egiteko, bai materialen inguruan baita teknikaren inguruan. Hori dela eta ikusten ditugu hornitzaile paregabe bezala.



Bestalde, kontuan hartuta gure zerbitzua elektronikarekin zerikusi dituen lokaletan salduko genituela, beste enpresa batzuekin harremanetan jarri beharko genuen batera lana egiteko. Modu honetan, denda desberdineetako langileei erakutzita zela instalatu kontroletan guk aurretik prestatutako diseinu desberdinak biak onuratuta irtengo genuen. Gure irabazien zati bat beraiei emanda biek kolaborazio hauetaz zerbait lortuko genuen.